

ZINEMATEKA

# BUSTER KEATON

Otsailaren 10etik martxoaren 17ra  
Del 10 de febrero al 17 de marzo

ARTEA ETA  
KULTURA  
ARTE Y  
CULTURA

Az  
Azkuna Zentroa

Alhóndiga Bilbao

[www.azkunazentroa.com](http://www.azkunazentroa.com)

B



## EGITARAU PROGRAMA

OTSAILAK 10 DE FEBRERO  
Asteazkena Miércoles

17:30	The saphead / Pasión y boda de pamplinas (1920) HERBERT BLACHÉ / WINCHELL SMITH 70' DCP
19:30	One week / Una semana (1920) EDWARD F. CLINE / BUSTER KEATON 19' DCP
	The three ages / Las tres edades (1923) BUSTER KEATON / EDWARD F. CLINE 80' DCP
	The scarecrow / El espantapájaros (1920) BUSTER KEATON / EDWARD F. CLINE 18' DCP

OTSAILAK 11 DE FEBRERO  
Osteguna Jueves

17:30	The three ages / Las tres edades (1923) BUSTER KEATON / EDWARD F. CLINE 80' DCP
19:30	The scarecrow / El espantapájaros (1920) BUSTER KEATON / EDWARD F. CLINE 18' DCP
	The saphead / Pasión y boda de pamplinas (1920) HERBERT BLACHÉ / WINCHELL SMITH 70' DCP
	One week / Una semana (1920) EDWARD F. CLINE / BUSTER KEATON 19' DCP

OTSAILAK 17 DE FEBRERO  
Asteazkena Miércoles

17:30	Our hospitality / La ley de la hospitalidad (1923) JOHN G. BLYSTONE / BUSTER KEATON 70' DCP
19:30	Neighbors / Vecinos (1920) EDWARD F. CLINE / BUSTER KEATON 18' DCP
	Sherlock Jr. / El moderno Sherlock Holmes (1924) BUSTER KEATON 51' DCP
	The haunted house / Pamplinas y los fantasmas (1921) EDWARD F. CLINE / BUSTER KEATON 21' DCP

OTSAILAK 18 DE FEBRERO  
Osteguna Jueves

17:30	Sherlock Jr. / El moderno Sherlock Holmes (1924) BUSTER KEATON 51' DCP
19:00	The haunted house / Pamplinas y los fantasmas (1921) EDWARD F. CLINE / BUSTER KEATON 21' DCP
	Our hospitality / La ley de la hospitalidad (1923) JOHN G. BLYSTONE / BUSTER KEATON 70' DCP
	Neighbors / Vecinos (1920) EDWARD F. CLINE / BUSTER KEATON 18' DCP

OTSAILAK 24 DE FEBRERO  
Asteazkena Miércoles

17:30	The navigator / El navegante (1924) DONALD CRISP / BUSTER KEATON 80' DCP
19:30	The goat / La cabra (1921) MALCOM ST. CLAIR / BUSTER KEATON 24' DCP
	Seven chances / Las siete ocasiones (1925) BUSTER KEATON 57' DCP
	The play house / El gran espectáculo (1921) EDDIE CLINE / BUSTER KEATON 22' DCP

OTSAILAK 25 DE FEBRERO  
Osteguna Jueves

17:30	Seven chances / Las siete ocasiones (1925) BUSTER KEATON 57' DCP
19:00	The play house / El gran espectáculo (1921) EDDIE CLINE / BUSTER KEATON 22' DCP
	The navigator / El navegante (1924) DONALD CRISP / BUSTER KEATON 80' DCP
	The goat / La cabra (1921) MALCOM ST. CLAIR / BUSTER KEATON 24' DCP

MARTXOAK 2 DE MARZO  
Asteazkena Miércoles

17:30	Go west / El rey de los cowboys (1925) BUSTER KEATON 68' DCP
19:30	The paleface / El rostro pálido (1922) BUSTER KEATON 20' DCP
	Battling butler / El boxeador (1926) BUSTER KEATON 74' DCP
	My wife's relations / Las relaciones con mi mujer (1922) BUSTER KEATON 30' DCP

MARTXOAK 3 DE MARZO  
Osteguna Jueves

17:30	Battling butler / El boxeador (1926) BUSTER KEATON 74' DCP
19:30	My wife's relations / Las relaciones con mi mujer (1922) BUSTER KEATON 30' DCP
	Go west / El rey de los cowboys (1925) BUSTER KEATON 68' DCP
	The paleface / El rostro pálido (1922) BUSTER KEATON 20' DCP

MARTXOAK 9 DE MARZO  
Asteazkena Miércoles

17:30	The general / El maquinista de la general (1926) CLYDE BRUCKMAN / BUSTER KEATON 83' DCP
19:30	College / El colegial (1927) JAMES W. HORNE 75' DCP
	The blacksmith / El herrero (1922) MALCOM ST. CLAIR / BUSTER KEATON 22' DCP

MARTXOAK 10 DE MARZO  
Osteguna Jueves

17:30	College / El colegial (1927) JAMES W. HORNE 75' DCP
19:30	The blacksmith / El herrero (1922) MALCOM ST. CLAIR / BUSTER KEATON 22' DCP
	The general / El maquinista de la general (1926) CLYDE BRUCKMAN / BUSTER KEATON 83' DCP

MARTXOAK 16 DE MARZO  
Asteazkena Miércoles

17:30	Steamboat Bill Jr. / El héroe del río (1928) CHARLES F. REINER / BUSTER KEATON 70' DCP
19:30	The frozen North / Pamplinas en el norte (1922) MALCOM ST. CLAIR / BUSTER KEATON 17' DCP
	The cameraman / El cameraman (1928) EDWARD SEDGWICK / BUSTER KEATON 69' 35mm

MARTXOAK 17 DE MARZO  
Osteguna Jueves

17:30	The cameraman / El cameraman (1928) EDWARD SEDGWICK / BUSTER KEATON 69' 35mm
19:00	Steamboat Bill Jr. / El héroe del río (1928) CHARLES F. REINER / BUSTER KEATON 70' DCP
	The frozen North / Pamplinas en el norte (1922) MALCOM ST. CLAIR / BUSTER KEATON 17' DCP

Film guztia JBGA (jatorrizko bertsioa azpititulekin), soinua erantsita eta ingelesaz sonorizadas con subtítulos en inglés.

# BUSTER KEATON

'KERONEAKO SEXTORI IKASIA:  
EZ AZALDU INOIZ ERE SUMINAREN  
EDO BESTE EDOZEIN GRINAREN  
ITXURARIK; IZAN ALDI BEREAN ERABAT  
PASIORIK GABEA ETA SAMURRA'.

'DE SEXTO DE QUERONEA:  
NO DAR JAMÁS LA IMPRESIÓN  
DE CÓLERA O CUALQUIER OTRA  
PASIÓN, SINO SER A UN TIEMPO MUY  
DESAPASIONADO Y MUY TIENRO'

Marco Aurelio,  
Gogoetak Meditaciones



J

Joan den mendearen hogeiko hamarkadan, soinudun zinema iritsi aurreko azken hamarraldian, zinema mutuak aparteko bikauntasun artistikoko garaia izan zuen. Lang, Muenau, Lubitsch, Stroheim, Eisenstein, Vidor eta garai hartako beste autore batzuen filmak lehenengo mailako artelanak dira zinemaren historiaren baitan. Urte horietan, urrezko aroa bizi izan zuen Amerikako komedia komikoak ere, eta Charles Chaplin figura geniala izan zen orduko kritikaren eta ikusleentziz idolo eztabaideazina. Beste artista bat bakarrik izan zen haren mailan jartzeko gai: Buster Keaton.

Buster umetatik zetorkion ezizena zen; Harry Houdini mago ihes-egile ospetsuak lan egiten zuen antzokian bere erorketa ikaragarrietakoa bat ikusi zuenean egin zuen oihuan du sorburua. Joseph Frank zuen benetako izena, eta Kansaseko Pikaway izeneko herrian jaio zen 1895ean. Bere gurasoak aktoreak zirenez, umetan egin zuen debutua agertokietan. Handik gutxira, aita alkoholarekin benetan arazo larriak izaten hasi zen. Azkeneko hiru kontu horietan Chaplinen antza izan zuen, eta, ibilbide paraleloak bizi izan bazituzten ere, euren bizitzak, zinema-estiloak eta bakoitzak sortu zituen pertsonaiak oso desberdinak izan ziren, eta alde askotatik antitetikoak ere bai.

Chaplinen pertsonaia mundu guztian Charlot bezala ezagutu zen bitartean, Keatonek irudikatzen zuenari hainbat izen eman zizkioten, herrialdeen arabera, eta Espanian Pamplinas (Txorakeria-esalea) izengoitzi desegokia jarri zioten. Hainbat garaitan garatzen diren bere filmetan, Keatonek zenbait paper jokatu zituen. Horrenbestez, izan zitekeen milioinduna, ikaslea, behizaina, treneko makinista, kaleko argazkilaria eta abar, baina beste inorekin ez nahasteko moduko ezaugarri berezi batzuk mantentzen zituen beti.

Alde batetik, bereizgarri nabarmen batzuk zeuzkan, hala nola kapela txikia, keinu neutrual eta sotilak, erorketa berealdikoak, zorabiagarría izan zitekeen bizkortasuna, itxura apaina, begitarte serioa, portaera kementsua eta, batik bat, hondamendiek ere hausten ez zuten estoizismoa. Alderdi horiek pertsonaiak be-

En los años veinte del siglo pasado, durante su última década antes de la irrupción del cine sonoro, el cine mudo vivió un periodo de extraordinario esplendor artístico. las películas de aquella época de autores como Lang, Muenau, Lubitsch, Stroheim, Eisenstein, Vidor, etc. son obras de primer rango dentro de la historia del cine. En esos años, la comedia cómica americana vivió también una época dorada en la que destacó como ídolo indiscutible de crítica y público la genial figura de Charles Chaplin y solamente otro artista fue capaz de situarse a su nivel, Buster Keaton.

Buster era un apodo que tuvo desde niño y que provenía de una exclamación de Harry Houdini, el famoso mago escapista, cuando fue testigo de una de sus tremendas caídas en el teatro en que actuaba. Su verdadero nombre era Joseph Frank y nació en un pueblo de Kansas llamado Pikaway en 1895. Sus progenitores eran actores, debutó de niño en los escenarios y pronto su padre tuvo muy graves problemas con el alcohol. En estas tres últimas cosas se pareció a Chaplin, pero aunque desarrollaron carreiras paralelas, sus vidas, sus estilos cinematográficos y los personajes que cada uno creó fueron muy diferentes y en muchos aspectos antitéticos.

Mientras el personaje chapliniano fue conocido como Charlot en todo el mundo, el que interpretaba Keaton recibió nombres diversos según los países y así por ejemplo en España le pusieron el poco apropiado apodo de Pamplinas. En sus filmes, que se pueden desarrollar en épocas diferentes, Keaton interpretaba distintos papeles, de tal modo que podía ser un millonario, un estudiante, un vaquero, un maquinista de tren, un fotógrafo callejero, etc. pero no obstante, siempre mantenía unas cualidades peculiares que lo hacen inconfundible.

Por un lado, unas características externas como su pequeño sombrero, sus gestos medidos y sobrios, sus espléndidas caídas, su agilidad que podía ser vertiginosa, su porte elegante, su semblante serio, su comportamiento voluntarioso y, sobre todo, un estoicismo a prueba de catástrofes. Aspectos que

rezko zituen ezaugarri psikologikoei erantzuten zien, enfasi dramatiko eta sentimentalatik urrun beti, aldi berean inolako zakarkeriarik edo ankerkeriarik azaldu gabe. Hori dela eta, kritikari batzuek, Charlotek gainezka azaltzen zuen berotasunarekin alderaturaz, gizatasunik gabekotzat jo zuten.

Gainera, Keatonek, bitzitzarrelean bere personaiaren oso antzekoa izanik, Charlot ez bezala, fotogenia eta edertasun ukaezina erantsi zien pertsonaiei, eta hala aitorut eta goretsi zioten Louise Brooksek edo Orson Wellesek. Bere begiak eta begirada bereziki komentatu eta analizatu izan dituzte. Esate baterako, gai horri buruz liburu mardul bat idatzi zuen Robert Benayounen iritziz, Buster Keatonen hilezkortasuna bere begiradan datza. Pertsonaiaren baitan funtsezkoa den misterio berezia duen begirada da.

Keatonen begiradan tristurazko malenkonia-kutsua dago, baina urrunerantz, zerumuga baino haratago jo nahi duen borondatearen bulkada ere igarri daiteke bertan. Horren harira, ez da harritzeko noizean behin Keaton nonbaitera igotzea eta eskua sudurraren gainean nahiz azpian jarrita, gelditu, eta begirada urruntasun ezezagun horretara bideratzea. Infiniturantz doan lerro zuzen eukliдиa seinalatzen du bere begiradak.

Chaplinek ez zuen lerro zuzena erabiltzen; egoera interesgarri bat aurkitzen zuenean itzuli egiten zen, era zirkularrean, bertara, korapiloa askatuz agortu arte. Keatonek, aldiz, lerro zuzena jarraitzen zuen, eta egoera batetik bestera alhalik eta modurik azkarrean pasatzen zen. Batzuetan, erlojuaren aurkako egiazko lasterketa ere gerta daiteke, 'Zazpi aukera' filmean bezala. Bere filmetan erloju asko agertzen dira, denbora bere egoera eta gag askoren funtsa ere badelako.

Lehen esan dugun moduan, Keaton antzerki mundutik zetorren, eta Fatty izenez ezagutzen zen bere lagun Roscoe Arbuckle gonbidatuta iritsi zen zinemara 1917an. Fatty bi bobinako film labur komikoak zuzentzen eta interpretatzetan zituen ordurako, arrakasta handiz. Arbucklekin ikasi zuen zuzendu eta muntatzekeo cinematografia-teknika. Oinarri horrekin, 1920an filmak zuzentzen eta interpretatzetan hasi zenean, Buster Keatonek bere cinematografia-estilo berezia osatu zuen, geometra baten estiloz: zorroztasun eta zehaztasun matematikoarekin landutako espazioaren eta denboraren gaineko lana, horretan bere bizitza arriskuan jartzearaino, 'Steamboat Bill Jr.' filmean 'Ba-

respondían también a unas cualidades psicológicas propias de este personaje siempre ajeno a todo énfasis dramático y sentimental, a la vez que carente de cualquier grosería o crueldad. Todo esto hizo que algunos críticos, al compararlo con la desbordante efusividad de Charlot, le tildaran de falta de humanidad. Además, Keaton, que en su vida real, a diferencia de Chaplin, se parecía mucho a su personaje, le aportó una fotogenia y una belleza innegable, que fue reconocida y alabada por Louise Brooks u Orson Welles. Sus ojos y su mirada han sido especialmente comentados y analizados. Así por ejemplo, para Robert Benayoun, que ha dedicado un extenso libro a este tema, la inmortalidad de Buster Keaton está en su mirada. Una mirada cuyo especial misterio es esencial en el personaje.

En la mirada de Keaton hay un poso melancólico de tristeza, pero también puede adivinarse en ella el impulso de una voluntad que apunta hacia lo lejano, hacia el más allá del horizonte y por eso no resulta extraño que, de vez en cuando, Keaton se encarame en algún lugar y con la mano a modo de visera, ya sea sobre o debajo de la nariz, se detenga y dirija su mirada hacia esa lejanía desconocida. Una mirada que señala una línea recta euclidiana cuya dirección es el infinito.

Chaplin ignoraba la línea recta y cuando hallaba una situación interesante volvía, de modo circular, una y otra vez, sobre ella hasta agotarla en un desenlace. Keaton en cambio seguía la línea recta y pasaba de una situación a otra de la forma más rápida posible. A veces puede tratarse incluso de una auténtica carrera contrarreloj, como en 'Siete ocasiones', y si aparecen muchos relojes en sus filmes es porque el tiempo también constituye el fundamento de muchas de sus situaciones y gags.

Como se ha dicho anteriormente, Keaton procedía del mundo del teatro y su llegada al cine se produjo en 1917 por una invitación de su amigo Roscoe Arbuckle, conocido como Fatty, que ya por entonces dirigía e interpretaba cortos cómicos de dos bobinas con notable éxito. Con Arbuckle aprendió la técnica cinematográfica de la dirección y el montaje, de modo que sobre esa base, cuando comenzó en 1920 a dirigir e interpretar sus propios filmes, Buster Keaton elaboró su peculiar estilo cinematográfico y este no es otro que el estilo de un geómetra que construye sus películas como un trabajo sobre el espacio y el tiempo elaborado con rigor y precisión matemáticos y esto hasta el punto de llegar a jugarse en ello su propia vida, como puede verse en

poreko Billgaztea' filmean tornadoaren sekuentzian ikus daitekeen bezala, etxe baten aurrealdea bere gainera erortzen denean.

Batzuetan, itxuraren engainuarekin jolas eginez erakitzuen zituen gagak; horrela, hasiera batean zirudinarenkiko bestelako zerbaiz erakusten zen gero, eta halaxe jarrai zitekeen hurrenzen hurreneko pausoetan. Gainera, komeni da adieraztea zinemak ametsekin lotzeko berezkoa duen ezaugarriak bizitasun aparteko hartzen duela Keatonen filmetan: errealeistik onirikorantz erraztasun izugarriz irristatzea dute bereizgarri. Zertzelada horrek, beti agertzen duen sa-kontasun poetikoarekin lotuta, surrealisten gogoko bi-hurtzea ekarri zuen, eta hori egiazatzen dute Buñuel, García Lorca eta Albertik, besteak beste, hari buruz idatzi zituzten testuek.

Soinudun zinema iritsi zenean, hogeita hamargarreneko hamarkadan artean gaztea zelarik, Buster Keatonen ibilibidea beherakada bizkorrean sartu zen, eta guztiak ahaztu zuten berehalaxe: ekoizleek, ikusleek eta kritikariekin. Bizitza pertsonalean ere arazo larriak izan zituen alkoholarekin eta jokoarekin, eta ezkonbiziitzan ere bai. Horiek gainditzea lortu zuenean, bigarren mailako paper laburra interpretatu zituen aldian behin, telebista egin zuen, publizitatea, gaueko klubetan aritu zen, eta Parisko Medrano zirkuan ere lan egin zuen, baita Europako film batzuetan ere.

Berregeita hamargarreneko hamarkadaren bukaeran, bere kategoria artistikoa aldarrikatu zuen Frantziako kritikak, eta 1962an Parisko zinematekak atzera begirakoa eta omenaldia eskaini zizkion. Bere azken lana bigarren mailako paper bat izan zen Richard Lesterrek Espanian filmatu zuen 'A Funny Thing Happened on the Way to the Forum' ('Errromako Golfus') obran. Handik gutxira, 1966ko otsailean hil zen AEBetako Woodland Hillseko bere etxearen, hirurogeita hamar urterekin. Aspaldi honetan ez da hiri honetan Buster Keatonen filmik ikusi, ziurrena 1982ko udaberriaino egin beharko genuke atzera: orduan proiektatu zen Campos Antzokian bere lanari eskainitako ziklo bat. Orain, Zinematekak aukera eskaintzen digu proiektio zinematografikoan zinemaren gizaldia izan zen XX. mendeko artista handi honen filmekin miresmenez gozatzeko.

la secuencia del tornado en 'El héroe del río', cuando cae sobre él la fachada de una casa.

En ocasiones construía sus gags jugando con el engaño de las apariencias y así, lo que se mostraba era otra cosa diferente de lo que parecía en un principio e incluso podía continuarse de ese modo en sucesivos pasos. Además, conviene señalar que esa cualidad inherente al cine y que lo emparenta con los sueños, cobra una particular intensidad en los filmes de Keaton que tienen la peculiaridad de deslizarse de lo real a lo onírico con extrema facilidad, circunstancia esta que, unida a su siempre presente profundidad poética, hizo que se convirtiera en favorito de los surrealistas y de ello son prueba los textos que Buñuel, García Lorca y Alberti, entre otros, escribieron sobre su figura.

Con la llegada del cine sonoro la carrera de Buster Keaton, que todavía era joven en los años treinta, se sumió en un rápido declive y muy pronto fue olvidado por todos, productores, público y críticos. Su vida personal atravesó también por graves problemas con el alcohol y con el juego, de los que tampoco se salvó su matrimonio. Cuando se sobrepuso interpretó esporádicos y breves papeles secundarios, hizo televisión, publicidad, actuó en clubes de noche y también trabajó en el circo Medrano de París, así como en algunas películas europeas.

A finales de los años cincuenta su categoría artística fue reivindicada por la crítica francesa y en 1962 la cinemateca de París le dedicó una retrospectiva y un homenaje. Su último trabajo fue un papel secundario en 'Golfus de Roma', que Richard Lester rodó en España. Poco después, en febrero de 1966, murió a los setenta años en su casa de Woodland Hills en Estados Unidos.

Hace tiempo que no se han visto las películas de Buster Keaton en esta ciudad, seguramente hay que remontarse a la primavera de 1982, en la que en el Teatro Campos se proyectó un ciclo dedicado a su obra. La Zinemateka nos ofrece ahora la oportunidad de disfrutar y admirar en proyección cinematográfica los filmes, siempre actuales, de este gran artista del siglo XX, el siglo del cine.



**THE SAPHEAD (1920)**  
**INOZOA**  
**PASIÓN Y BODA DE PAMPLINAS**

EE.UU. DCP 70'

Z/D: Herbert Blaché, Winchell Smith. A: Beulah Booker, Edward Connelly, Edward Jobson, Buster Keaton, Edward Alexander, Odette Taylor, Carol Holloway, Irving Cummings, Jack Livingston, William H. Crane.



**ONE WEEK (1920)**  
**ASTEBETE**  
**UNA SEMANA**

EE.UU DCP 19'

Z/D: Edward F. Cline y Buster Keaton. A: Buster Keaton, Sybil Seely, Joe Roberts, Lon Chaney.



**THE THREE AGES (1923)**  
**HIRU ARO**  
**LAS TRES EDADES**

EE.UU. DCP 80'

Z/D: Buster Keaton, Edward F. Cline. A: Buster Keaton, Wallace Beery, Margaret Leahy, Joe Roberts, Lillian Lawrence, Lionel Belmore, Blanche Payson, Kewpie Morgan.



**THE SCARECROW (1920)**  
**TXORIMALOA**  
**EL ESPANTAPÁJAROS**

EE.UU. DCP 18'

Z/D: Edward F. Cline y Buster Keaton. A: Buster Keaton, Sybil Seely, Joe Roberts, Edward F. Cline, Joe Keaton.

Broadwayko antzezlan arrakastatsu batengoa egotikzapena izanik, bertan Keatonek aktore-lana baizik ez zuen egin, eta Bertie gorputzu zuen, gazte lotsati ameslari samarra. Aita finantzalorreko milioideko aberatsa duenez, bizitza nagia bizi du Bertiek, erosoa baino erosoa goagoa. Aitaren alababitiarekin maiteminduta dago, eta hari zurrara eragiten ahalegintzen da gaueko bizitza jostalarian murgilduta. Dena konpondu dela dirudienean, ezkondu egin behar duen unean, maitasun-iskanbila batean nahastuta harrapatu duten koinatuak Bertie agerrarazi du gertatutakoaren erruduntzat.

Adaptación de un éxito teatral de Broadway, Keaton se limita a su faceta de actor y encarna a Bertie, un tímido joven de estilo algo sonámbulo. Hijo de un multimillonario rey de las finanzas, lleva una existencia ociosa y llena de comodidades. Enamorado de la ahijada de su padre, trata de impresionarla lanzándose a una vida de diversiones nocturnas. Cuando todo parece arreglado y va a celebrarse su boda, su cuñado, pillado en un escándalo amoroso, hace que Bertie aparezca como el culpable. //

Istorioa Keatonek eta Seelyk osatutako bikote ezkonberriari buruzkoa da: ezkon-oparitzat 'Zuk zeuk egin ezazu' motako etxe bat eman diete. Dirudienez, etxea 'astebetean' eraiki daiteke. Seelyrekin ezkondu nahi zuen txofer jeloskor erresumindua pakete guztien zenbakia aldatu ditu isilpean. Filmean, okerreko planoaren arabera etxea osatzeko Keatonek egindako ahaleginak kontatzen dira.

La historia trata sobre una pareja de recién casados, Keaton y Seely, quienes reciben como regalo de boda una casa del tipo 'Hágalo usted mismo'. Supuestamente es posible construir la casa en 'una semana'. Un chófer celoso, pretendiente despechado de Seely, cambia de forma secreta los números de los distintos paquetes. La película relata las peripecias de Keaton al tratar de armar la casa según los planos erróneos. //

D.W.Griffithen 'Intolerantzia' filmean inspiratutako narrazio-egiturarekin, Keatonen lehenengo film luze honetan trama bakar bat aurkezten da, aktore beraiekin hiru aldi historiko desberdinatetan garatzen dena. Bertan, Keaton eta neskaren maitasuna lortzeko bere aurkariaren arteko borroka da gertaeraren eragile nagusia. Gertaera horiek Harri Aroan kokatuta daude lehenengo, Errroma imperialean gero eta filma grabatu zeneko garaian azkenik.

Con una estructura narrativa inspirada en 'Intolerancia' de D.W.Griffith, este primer largometraje de Keaton presenta una misma trama que, con los mismos actores, se desarrolla en tres épocas históricas diferentes. Así, la pugna de Keaton y su rival en el amor de la chica constituye el motivo central de los episodios, que se sitúan, primero en la Edad de Piedra, luego en la Roma imperial y finalmente en la época contemporánea del film. //

Keaton eta Roberts jornalariak dira, eta bizitza errazten dieten gailu mekanikoz betetako landa-etxetxoan bizi dira. Biek maite dute baserritarren alaba, eta lehian dabiltsa haren maitasuna lortzeko. Keatonek, txorimalo jantzia, era guztietaiko arazoak eragingo dizkie bai bizilagunari bai eta baserritarri ere.

Los jornaleros Keaton y Roberts comparten una casita de campo llena de aparatos mecánicos que les hace la vida más fácil. Ambos rivalizan por el amor de la hija del granjero. Keaton, disfrazado de espantapájaros, causará todo tipo de problemas a su rival y al granjero. //



**OUR HOSPITALITY (1923)**  
**GURE ABEGI ONA**  
**LA LEY DE LA HOSPITALIDAD**

EE.UU. DCP 70'

Z/D: Buster Keaton, John G. Blystone.  
A: Buster Keaton, Joe Roberts, Ralph Bushman, Craig Ward, Monte Collins, Joe Keaton, Kitty Bradbury, Natalie Talmadge.



**NEIGHBORS (1920)**  
**AUZOKOAK**  
**VECINOS**

EE.UU. DCP 18'

Z/D: Buster Keaton, Edward F. Cline.  
A: Buster Keaton, Virginia Fox, Joe Roberts, Joe Keaton, Edward F. Cline, James Duffy.



**SHERLOCK JR. (1924)**  
**SHERLOCK GAZTEA**  
**EL MODERNO SHERLOCK HOLMES**

EE.UU. DCP 51'

Z/D: Buster Keaton. A: Buster Keaton, Kathryn McGuire, Joe Keaton, Ward Crane, Erwin Connelly, Jane Connelly.



**THE HAUNTED HOUSE (1921)**  
**SORGINDUTAKO ETXEA**  
**PAMPLINAS Y LOS FANTASMAS**

EE.UU. DCP 21'

Z/D: Buster Keaton, Edward F. Cline.  
A: Buster Keaton, Virginia Fox, Joe Roberts, Edward F. Cline, Natalie Talmadge.

AEBetako hegoaldeko 1831n egindako girote historiko miresgarria da Keatonen film distiratsuenetako honen agertokia. Belaunaldiz belaunaldi elkarren aurka jarritako bi familiaren hiltzera inoko gorrota azpimarratzen duen hitzaurrearen ostean, hogei urte geroxeago hasten da istorioa, New Yorken hezitako Willie McKay gaztea bere ondarearen jabe egiteko jaioterrira itzultzen denean.

Una admirable ambientación histórica en el Sur de Estados Unidos en 1831, sirve de marco a una de las más brillantes películas de Keaton. Tras un prólogo en clave dramática que subraya el odio a muerte que, de generación en generación enfrenta a dos familias, la historia recomienza veinte años después cuando Willie McKay, un joven educado en New York, emprende el regreso a su lugar natal para tomar posesión de su hacienda. //

Hesi ziztrin batek bereizten ditu bi familiaren jabetzak. Hesiko zulotxo batetik maitasun-mezuak trukatzen dituzte familia bateko Keaton semeak eta beste familiako alaba polit gazteak. Horrela, hainbat nahasmen gertatuko da, nork nor maite. Kalapita ugariren hasiera baizik ez da izango hori, eta Keaton guztietan azalduko da, bere aurpegi aldagaitzarekin beti. Aurpegia belztuko zaio, polizia-talde osoa mugiaraziko dute, eta azkenean bi familiiek epailearen aurrera joan beharko dute.

Las propiedades de dos familias están separadas por una endeble valla. A través de un agujerito de la misma, Keaton, vástago de una familia, y una agraciada joven, hija de la otra familia, intercambian mensajes de amor. Esto va a dar pie a varios equívocos sobre quién ama a quién. Es sólo el comienzo de un montón de líos en que se mete Keaton, siempre con su cara impasible, y que además de tiznarle la cara, movilizan a todo un pelotón de policías hasta que las dos familias deben comparecer ante el juez. //

Keaton detektibea izan nahi duen zinema-proiektatzalea da. Emaztegaiaren aitari balio handiko erojo baliotsu bat lapurtu diote, eta, lapurra bere maitasun-arerioa izan daitekeela susmatuta, bere susmoa egiaztatzen ahalegintzen da. Dena den, ustea ustel aterako zaio, eta neskak utzi egingo du. Kabinako bere lanera itzulitakoan, proiektatzen ari den filmean sartzen dela egiten du amets, eta bertan abentura ederra biziko du detektibe handi gisa, berak bizi izan duenaren antzeko kasua ebatzita.

Keaton es un proyeccionista de cine que ambiciona ser detective. Al sospechar que su rival amoroso es el autor del robo de un valioso reloj perteneciente al padre de su novia, trata de demostrarlo, pero fracasa en su intento y la chica rompe con él. Al regresar de nuevo al trabajo en su cabina, sueña que entra en la película que se está proyectando y vive allí una aventura en la que es un gran detective, que resuelve un caso semejante al anterior de la vida real. //

Keaton bankuko langilea da, lagunkoa beti bezeroekin, andre gazte ederrekin bereziki. Billeteak eta itsasgarri indartsua tarteko nahas-mahas itzela eragin ostean, ustez sorgindutako dagoen etxe batera iritsiko da. Azkenean, lapur-talde baten amarrua izango da hori guztia.

Keaton es un empleado de banco, siempre servicial con sus clientes, especialmente si se trata de bellas damiselas. Después de montar un lío de los gordos con los billetes y un potente pegamento, irá a parar a una casa supuestamente encantada, aunque en realidad todo consiste en la treta de una banda de ladrones. //



**THE NAVIGATOR (1924)**  
**NABIGATZAILEA**  
**EL NAVEGANTE**

EE.UU. DCP 80'

Z/D: Donald Crisp, Buster Keaton.  
A: Buster Keaton, Kathryn McGuire, Frederick Vroom, Noble Johnson, Clarence Burton.



**THE GOAT (1921)**  
**AHUNTZA**  
**LA CABRA**

EE.UU. DCP 24'

Z/D: Buster Keaton, Malcolm St. Clair.  
A: Buster Keaton, Virginia Fox, Joe Roberts, Malcolm St. Clair, Edward F. Cline, Jean C. Havez, Joe Keaton, Louise Keaton, Myra Keaton.

Keaton egun horretan bertan norbaitekin ezkontzea erabaki duen gazte milioduna da. Dena prestatu eta bi bidaia-txartel eginarazi dituen arren, neska aurkitzea falta zaio. Alboko bizilagunari proposatu dio, ontzijabe aberats batet alabari, baina hark uko egiten dio. Ezetzarekin zapztuta, bidaiai bakarrak ekitea erabaki du. Okerreko kaian ontziratu ostean, transatlantikoa sabotatzeko asmotan dabilen espioi-konspirazio baten eraginez, ontzia jitoan geldituko da itsas zabalean etakanibalak bizi diren irla baten ondoanmatxuratuiko da.

Keaton es un joven millonario que decide casarse ese mismo día: hace los preparativos y encarga dos pasajes, pero le falta decírselo a la chica. Se lo propone a su vecina, hija de un rico armador, pero ésta le rechaza. Abatido por tal negativa, decide emprender el viaje en solitario. Su equivocación de muelle de embarque y una conspiración de espías para sabotear el trasatlántico, llevan el barco a la deriva y acaba averiado junto a una isla poblada por caníbales.

**Keaton Dead Shot Dan gaizkile ospetsuarekin nahastu ondoren, tokiko poliziako buruzagiak jazarri egingo du protagonista hiri osoan zehar. Ezkutatzeko leku batet bila ibilita, Virginianiaren etxearen hartuko du babes, neska gaztea polizia-buruaren alaba dela jakin gabe.**

Tras ser confundido con el famoso forajido Dead Shot Dan, el protagonista (Keaton) es perseguido por toda la ciudad por el jefe de la policía local. Buscando un lugar donde esconderse, se refugia en casa de Virginia, sin saber que la jovencita es la hija del jefe de policía. //



**SEVEN CHANCES (1925)**  
**ZAZPI AUKERA**  
**Siete ocasiones**

EE.UU. DCP 57'

Z/D: Buster Keaton, Ruth Dwyer, T. Roy Barnes, Snitz Edwards, Frances Raymond, Erwin Connelly, Jules Cowles.



**THE PLAYHOUSE (1921)**  
**ANTZOKIA**  
**EL GRAN ESPECTÁCULO**

EE.UU. DCP 22'

Z/D: Buster Keaton, Edward F. Cline.  
A: Buster Keaton, Virginia Fox, Joe Roberts, Edward F. Cline, Joe Murphy.

Burtsako agente gazte bat (Keaton) ez da ausa-sartzen bizi guztiko emaztegaiari ezkontzeko eskatzera. Dirurik gabe hondamendiaren ertzean dagoenean, abokatu batek esaten dio aitonak milioi askoko oinordetza utzi diola, baldintza barkeratzen: 27 urte betetzean arratsaldeko 7etan ezkondua izatea. Egun horrexetan ezkontzeko eskatzen dio emaztegaiari, baina hark gaizki uliotu eta uko egiten dio. Etsipenak jota, berekin ezkontzeko eskatzen hasten da ezagutzen dituen neska guztiei, eta, prentsan iragarki bat jarri ondoren, ezkongai jantzitako ehunka neskak hasiko zaizkio jarraika.

Keaton, joven agente de bolsa al borde de la ruina, no se atreve a declararse a su novia. Su abuelo le deja una millonaria herencia si se casa las 7 de la tarde de su 27 cumpleaños. Propone matrimonio a su novia, pero ésta le rechaza. Desesperado comienza a pedir matrimonio a todas las chicas que conoce e incluso pone un anuncio en la prensa, pasando a ser perseguido por cientos de mujeres vestidas de novia. //

Protagonistak (Keaton) orkestra-zuzendaria dela egin du amets. Gero ikusten da antzoki bateko tramoia dela. Bi ahizpa biki ezagututa, haietako batekin maiteminduko da, eta sekulako katramila eragingo du horrek.

El protagonista (Keaton) tiene un sueño en el que es él el director de orquesta. Después resulta ser el tramoista de un teatro. Cuando conoce a dos hermanas gemelas, se enamora de una de ellas, lo que desencadena una gran confusión. //



**GO WEST (1925)**  
**ZOAZ MENDEBALDERA**  
**EL REY DE LOS COWBOYS**

EE.UU. DCP 68'

Z/D: Buster Keaton. A: Buster Keaton, Howard Truesdale, Kathleen Myers, Ray Thompson, Brown Eyes.



**THE PALEFACE (1922)**  
**AURPEGI ZURBIL**  
**EL ROSTRO PALIDO**

EE.UU. DCP 20'

Z/D: Buster Keaton. A: Buster Keaton, Virginia Fox, Joe Roberts.



**BATTLING BUTLER (1926)**  
**BUTLER BORROKALARIA**  
**EL BOXEADOR**

EE.UU. DCP 74'

Z/D: Buster Keaton. A: Buster Keaton, Sally O'Neil, Walter James, Budd Fine, Francis McDonald, Mary O'Brien, Tom Wilson, Eddie Borden, Snitz Edwards.



**MY WIFE'S RELATIONSHIPS (1922)**  
**NIRE EMATZEAREN HARREMANAK**  
**LAS RELACIONES CON MI MUJER**

EE.UU. DCP 30'

Z/D: Buster Keaton. A: Buster Keaton, Monte Collins, Wheezer Dell, Harry Madison, Kate Price, Joe Roberts.

Lanik eta dirurik gabeko gazte bat (Keaton) merkantzia-tren batera igotzen da. Arrantxo batera iristea lortzen du, eta behizain lana ematen diote bertan, baina lanbidea erabat arrotza zaio. Estimua erakutsi dioten bakarrak bazter guztietara jarraitzen dion Begi Marroi izeneko behi bat eta jabearen alaba gaztea dira. Behizainek ganadua hiltegira eraman behar dute trenean, eta berak harekin batera igoko da trenera. Etsaia duten ganaduzale batek euren helmugara iristea eragotzi nahiko die kosta ahala kosta.

Un joven sin dinero y sin trabajo (Keaton) se sube a un tren de mercancías. Consigue llegar a un rancho en el que le dan trabajo como vaquero, pero desconoce completamente el oficio. Solo le aprecian una vaca llamada Brown Eyes que le sigue a todas partes, y la joven hija del dueño. Los vaqueros tienen que llevar el ganado en un tren al matadero y él se sube también con ella. Un ganadero rival trata de evitar por todos los medios que lleguen a su destino. //

Petrolio-bilatzaire maltzur batzuek egun bateko epea eman diote indiarrei euren lurretan alde egin dezaten. Indiar buruzagiak azaltzen den lehenengo gizon zuria hiltzeko agindua eman die bere gerrariei. Orduan, agertuko da eszenan tximeleta bati jarraitzen.

Unos malvados buscadores de petróleo dan un plazo de un día a los indios para irse de sus tierras. El jefe indio ordena a sus guerreros que maten al primer hombre blanco que aparezca. aparece en escena persiguiendo a una mariposa.

//

Aita miliodunaren nahia beteaz, mendian ehi-za eta arrantza eginez bere kabuz bizitzen ikasteko kanpaldia egin beharko du Alfred Butler gazte alferrak (Keaton). Maiordomoarekin eta era guztietako luxuekin joaten da, eta landa-lurretan bertako neska gazte batekin maitemintzen da. Maiordomoak mutila boxeoko txapeldun handia dela sinestarazten dio neskaren familiari, eta ezkondu egiten dira. Baina 'Alabamako hiltzaileak' erronka jotzen dionean, Alfredek engainuari eutsi egin beharko dio ondorio guztiekin.

Por deseo de su millonario padre y para aprender a valerse por sí mismo practicando la caza y la pesca, el joven y ocioso Alfred Butler (Keaton) tiene que ir de acampada. Lo hace con un mayordomo y toda clase de lujo. En el campo se enamora de una joven lugareña. El mayordomo hace creer a la familia que se trata de un campeón de boxeo y la pareja se casa. Cuando es retado por 'El asesino de Alabama', Alfred tendrá que mantener el engaño con todas sus consecuencias.

//

Keatonek leiho bat apurtu duela salatu du Irlandako emakume handikote batek, eta ingelesez ez daki poloniar epaile baten aurrera iritsi dira biak. Epaileak ezkontzera joan direla pentsatuko du. Ezkonberriak euren etxe berrira iritsiko dira, eta bertan Keatonek emaztearen piztia jiteko lau anaia ezagutuko ditu.

Cuando una enorme mujer irlandesa acusa a Keaton de haber roto una ventana es llevado ante un juez polaco que no habla inglés y asume que ambos están allí para casarse. La nueva pareja llega a su nuevo hogar donde Keaton conoce a los cuatro hermanos de la novia con aspecto de bestias. //



**THE GENERAL (1926)**  
**GENERALA**  
**EL MAQUINISTA DE LA GENERAL**

EE.UU. DCP 83'

Z/D: Buster Keaton, Clyde Bruckman. A: Buster Keaton, Marion Mack, Glen Cavender, Jim Farley, Frederick Vroom, Charles Smith, Frank Varnes, Joe Keaton, Mike Donlin, Tom Nawm.



**COLLEGE (1927)**  
**IKASLEA**  
**EL COLEGIAL**

EE.UU. DCP 75'


Z/D: James W. Horne. A: Buster Keaton, Anne Cornwall, Harold Goodwin, Snitz Edwards, Florence Turner, Grant Withers.

Sezesio Gerrako garaiaaren berreraikitzeko akasgabea. Johnnie Gray (Keaton) tren bateko makinista da, eta hegoaldeko armadan izena ematea erabaki du, baina ez dute onartzentz. Horren ondorioz, bere emaztegai Annabelek uko egingo dio. Mozorrotutako Batasuneko soldadu-komando bat Konfederazioko lurretan sartzen da, eta bere bi maiteak preso hartuta egiten dute ihes: lokomotora eta bere emaztegaia.

Perfecta reconstrucción de la época de la Guerra de Secesión americana. Johnnie Gray (Keaton) es un maquinista de tren que cuando decide alistarse en el ejército sudista no es admitido, lo que provoca el rechazo de su novia Annabel. Un comando de soldados del ejército de la Unión disfrazados hace una incursión en territorio confederado y huyen llevándose sus dos amores, la locomotora y a su novia como prisionera. //

Ronald (Keaton) da Bigarren Hezkuntzako eskolako ikaslerik buruargiiena, baina ez du atletismoa atsegin. Graduatzeako ekitaldian egindako hitzaldian ikasteak kirolarekiko duen nagusitasuna goresten duelarik, ikaskideek gaitzetsi eta iseka egiten diote; maite duen neskak ere uko egingo dio, eta ikaslerik atletikoarenarekin joango da. Neskari zirrara eragiteko asmoz, kirolari handia bihurtzeko ahaleginak egingo ditu, kirol guztiak probatuz, baina emaitza negargarri samarrak lortuko ditu.

Ronald (Keaton) es el alumno intelectualmente más brillante de la Escuela Secundaria, pero no le gusta el atletismo. En el acto de la graduación pronuncia un discurso exaltando la primacía de los estudios sobre el deporte, lo que suscita la desaprobación y burla de sus compañeros y de la chica que le gusta, quien le rechaza para irse con el alumno más atlético. En la Universidad, para impresionar a la chica, trata de convertirse en un gran deportista, con resultados bastante catastróficos. //



**THE BLACKSMITH (1922)**  
**ERREMENTARIA**  
**EL HERRERO**

EE.UU. DCP 22'

Z/D: Buster Keaton, Malcolm St. Clair. A: Buster Keaton, Joe Roberts, Virginia Fox.



**STEAMBOAT BILL JR. (1928)**  
**BAPOREKO BILL GAZTEA**  
**EL HÉROE DEL RÍO**

EE.UU. DCP 70'

Z/D: Buster Keaton, Charles Reisner (AKA Charles Riesner). A: Buster Keaton, Tom McGuire, Ernest Torrence, Tom Lewis, Marion Byron.

Keatonek erreminta-etxe batean bereak eta bi egin ostean, jabea borrokan hasi, eta espetxeratu egin dute. Keaton arduratuko da orduan bezeroak eta euren zaldiak artatzeaz, baina baita Rolls Royce zoragarri bat birrintzeaz ere.

Keaton hace de las suyas en una herrería hasta que el dueño comienza una pelea que le lleva a la cárcel. Keaton se encarga de atender a los clientes con sus caballos, pero también se encargará de destrozar un precioso Rolls Royce. //

Bostongo ikastetxe batean ikasketak amaiturik, Bill Canfield (Keaton) Hegoaidera iristen da aitari bisita egitera. Aitak ez du haurretxo zenetik ikusi, eta txarrerako harrituta geldituko da haren jaunxkila itxura apain eta maskala ikusita. Aita bapore zahar bateko patroi zakarra da, eta ezin izango du miliodun baten beste ontzi moderno batekin lehiatu. Miliodun horren alabaz maiteminduko da Bill.

Al terminar sus estudios en un colegio de Boston, Bill Canfield (Keaton) llega al Sur para visitar a su padre, que no le ha visto desde que era un bebé y que se ve desagradablemente sorprendido por su aspecto de señorito atildado y enclenque. El padre es el rudo patrón de un viejo barco de vapor, que no podrá competir con otro barco moderno, propiedad de un millonario, de cuya hija se enamora Bill. //



## THE FROZEN NORTH (1922) IPARRALDE IZOZTUA PAMPLINAS EN EL NORTE

EE.UU. DCP 17'

Z/D: Buster Keaton, Malcolm St. Clair.  
A: Buster Keaton, Joe Roberts, Sybil Seely,  
Bonnie Hill, Freeman Wood, Edward F. Cline.

New Yorkeko metroko azken geltokia Ipar Poloan dago. Hantxe jaitsiko da protagonista. Etxera iritsitakoan, ustekabeko garratza jasoko du: emaztea beste gizon batu musu ematen. Tragedia mahai gainean dago.

La última estación de metro de Nueva York está en el Polo Norte. Pamplinas se apea allí. Al llegar a casa se encontrará con una desagradable sorpresa, su mujer besando a otro hombre. La tragedia está servida. //



## THE CAMERAMAN (1928) KAMERARIA EL CAMERAMAN

EE.UU. 35mm 69'

Z/D: Edward Sedgwick, Buster Keaton.  
A: Buster Keaton, Marceline Day, Harry Gribbon, Harold Goodwin, Sidney Tracey, Ray Cooke, William Irving, Bert Moorhouse, Vernon Dent, Richard Alexander.

Luke Shannon (Keaton) New York hiriko kale-argazkilaria da. Halabeharrez, Sally ezagutuko du eta harekin maiteminduko da. Nesak albistegi-ekoiztetxe batean lan egiten duenez, bigarren eskuko kamera bat erosi, eta kamerari hasiko da lanean. Debuta negargarriaren ondoren, tximino txiki baten laguntzarekin lanbidean arrakasta izatea lortuko du eta maitasun-arerioaren benetako izaera agerraztea ere bai.

Luke Shannon (Keaton), fotógrafo callejero en New York, conoce por azar a Sally, de la que se enamora. La joven, empleada en una productora de noticiarios, compra una cámara de segunda mano para trabajar como cameraman. Tras un debut desastroso, con la ayuda de un pequeño mono, conseguirá triunfar en la profesión y desenmascarar a su rival amoroso. //

## SARRERAK ENTRADAS

Zinemako txarteldegian eta [www.golem.es](http://www.golem.es) helbidean  
Taquillas del cine y [www.golem.es](http://www.golem.es)

4,5€ / 3,5€

Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedezi eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartel-lehehiatilan ilarak saihesteko. Behin emanaldia hasita, ezin da aretoan sartu. Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arrazoirengatik programazioan izan daitezkeen aldaketen erantzulea.

La sala de cine se abrirá al público 15 minutos antes de la proyección de la película. Se ruega a los espectadores y espectadoras que acudan con unos minutos de antelación para evitar colas en taquilla. No está permitido el acceso a la sala una vez comenzada la sesión. Azkuna Zentroa no se responsabiliza de cualquier cambio de programación debido a circunstancias ajenas a su gestión.

Azkuna Zentroko Zinematekak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urte osoan zinemari eta ikus-entzunezko sorkuntzari buruz. Hemen duzu programazioa eskuragarri: [www.azkunazentroa.com](http://www.azkunazentroa.com)

La Zinemateka de Azkuna Zentroa organiza a lo largo del año diferentes actividades en torno al cine y la creación audiovisual. Puedes consultar la programación en: [www.azkunazentroa.com](http://www.azkunazentroa.com)

## LABURDURAK ABREVIATURAS

- A/F: Argazkiak Fotografía
- A: Aktoreak Actores
- B/N: Zuri-beltzez Blanco y negro
- Dc: Dekoratuak Decorados
- G: Gidoia Guión
- JB/VO: Jatorrizko bertsioa Versión original
- JG/A: Argazkiak Fotografía
- JBGA/VOSE: Jatorrizko bertsioa, gaztelaniaz azpititulatura Versión Original con subtítulos en castellano
- K/C: Kolorea Color
- M: Musika Música
- Mu/Mo: Muntaketa Montaje
- P: Produktorea Productor
- Pr: Ekoizpen-etxea Compañía productora
- S: Soinua Sonido
- Z/D: Zuzendarria Director

---

GURE JARDUERETARA IRISTEA ERRAZTEKO  
NAHIZ JARDUERAZ ENTZUMEN-GAITASUN  
HOBEAZ GOZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA  
BEHAR IZANEZ GERO, ESKA IEZAGUZU.  
AZKUNA ZENTROA ESPAZIOA IRISGARRIA  
DA PERTSONA GUZTIENTZAT.

SI NECESITAS ALGUNA AYUDA TÉCNICA  
QUE TE FACILITE EL ACCESO A NUESTRAS  
ACTIVIDADES, O PARA DISFRUTAR DE  
LA ACTIVIDAD CON MEJOR CAPACIDAD  
AUDITIVA, PIDENOSLO. AZKUNA ZENTROA  
ES UN ESPACIO ACCESIBLE PARA TODAS  
LAS PERSONAS.



## ZENTROAREN ORDUTEGIA HORARIO DEL CENTRO

7:00h - 23:00h ASTELEHENAK-OSTEGUNA  
LUNES-JUEVES

8:30h - 24:00h LARUNBATA  
SÁBADO

7:00h - 24:00h OSTIRALA  
VIERNES

8:30h - 23:00h IGANDEA  
DOMINGO

---

Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen,  
pentsa ezazu ingurumenaren inguruan duzun  
erantzukizunarekin eta konpromisoarekin.  
Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste  
pertsona batzuek ikus dezaten.

Antes de llevarte este folleto, piensa en tu  
responsabilidad y compromiso con el medio  
ambiente. Si no lo vas a usar, déjalo para  
que otras personas puedan verlo.

---

# www.azkunazentroa.com

info@azkunazentroa.com  
PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO  
944 014 014



Depósito legal BI-129-2016



[www.azkunazentroa.com](http://www.azkunazentroa.com)